



Elementu kimiko motak

Metalak:




azken mailako elektroiak galtzeko joera dute, ioi positiboa (katioia) emanez.



Ez-metalak:

kanpoko elektroiak hartzen dute, azken maila osatu arte.

Honela, ioi negatiboa (anioia) ematen dute



Gas nobleak:

Ez dute elektroiak hartzeko ezta galtzeko joerarik.

Elektroien azken mailan 8 elektroirik dituzte (lehenak, He, 2 elektroirik)




Lotura kimikoak

Lotura ionikoa:

metal eta ez-metalen artean normalean.

Metalak elektroiak galtzen ditu eta ez-metalak irabazi; sortutako ioi positibo eta negatiboak elkarturik geratzen dira, aurkako karga elektrikoa dutelako.

Sare kristalinoa ematen dute.



Substantzia ionikoak:

solidoak dira giro-temperaturan, gogorrak eta hauskorrek dira.


Urtze-puntua oso altua dute, uretan disolbagarriak eta eroankortasun handia dute urtuta edo disolbatuta.

Material zeramikoak, era honetako loturak eta sare kristalinoa izaten dute.

Lotura kimikoak

Lotura kobalentea:




Ez-metalen artean ematen da eta loturaren bidez elektroiak konpartitu egiten dituzte.



Plastikoak, substantzia kobalentearen adibideak dira.

Susbtantzia kobalenteak, solidoak, likidoak edo gasak izan daitezke. Ez dira elektrizitatearen oso eroale onak.

Zenbait solido kobalente (diamantea eta kuartzoa) oso gogorak eta urtze-puntu altukoak dira.



Materiaren konposizioa

Lotura kimikoak


Lotura metalikoa:

Metalen artean ematen da.

Gune positiboen (nukleoa eta barneko elektroiak) artean kanpoko elektroiak mugitzen dira solidoan zehar, hodei elektronikoa osatuz.



Metalak, era honetako loturak dute.



Substantzia metalikoak solidoak dira giro-temperaturan (merkurioa izan ezik) eta propietate mekaniko onak dituzte: eroale onak dira, xaflakortasuna eta harikortasuna.

